

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LEGUTIOKO UDALA

#### Idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzea

Alkateak, 2015eko irailaren 28an emandako dekretuz, honako ebazpen hau onartu du:

Nola eta, Gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeari buruzko Errege Dekretuak xedatutakoaren arabera (1732/1994 Errege Dekretua, uztailaren 29koa), Legutioko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostu hori estatu mailako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioentzat gordeta dagoen.

Nola eta Legutioko Udaleko lanpostu horren titularra LIG bajaran dagoen.

Kontuan hartuz Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.1.h) artikuluan eta 92. bis artikuluan xedatutakoa (7/1985 Legea, apirilaren 2koa).

#### EBAZTEN DUT

Lehenengoa. Hamabost egun balioduneko epea irekitzea, dagokion iragarkia ALHAOn argitaratzen den egunetik hasita, hautagaiek eskaerak egiteko; xedea da Legutioko Udal honetako idazkaritza-kontuhartzailetzako plaza behin-behinean betetzea. Eskaerak dekretu honi erantsita dagoen ereduaren arabera egin behar dira.

Estatu mailako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionario bat izendatuko da, lanpostuaren azpieskala eta kategoria bereko hautagaiek lehentasuna izanik; kontu hori behar den moduan egiaztatuko da.

Hautagai bat baino gehiago aurkezten bada, parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean dagokion Ministerioak argitaratutako azken merezimendu lehiaketan puntu gehien lortu duena proposatuko da izendatua izateko.

Bigarrena. Jakinarazten da idazkari-kontuhartzaile lanpostuak 3. hizkuntza eskakizuna duela esleitura, derrigortasun datarik gabe. Lanaldia osoa izango da.

Hirugarrena. Arabako Foru Aldundiari hautatutako hautagaiaren behin-behineko izendapena proposatzea.

Laugarrena. Hautagairik aurkezten ez bada, aurrera egingo du gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeari buruzko Errege Dekretuaren 30. artikulua eta hurrengoek xedatutako prozedurak (1732/1994 Errege Dekretua, uztailaren 29koa).

Bosgarrena. Udalbatzari ebazpen honen berri ematea hurrengo osoko bilkuran."

Legutio, 2015eko irailaren 28an

*Alkatea*

**NEKANE GARAIGORDOBIL BENGOA**

**Eranskina**

.....jaunak/andreak (NANa: .....; jakinarazpenetarako helbidea: .....; telefonoa: .....), zeinak, gaikuntza nazionalako funtzionarioa izanik, ..... azpieskalakoa, egun ..... toki administrazioan..... lanpostua betetzen baitu, ondokoa

**Adierazten du**

Jakin duela Legutioko Udalaren idazkari-kontuhartzailea aldi baterako bajaran dagoela 2015eko irailaren 18az geroztik, eta beharrezkoa dela lanpostu hori betetzea aldi batez, uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuaren 30. artikularekin bat etorritik (1732/1994 Errege Dekretua, Gaikuntza nazionalako toki administrazioari funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeari buruzkoa).

Uste duela betetzen dituela lanpostu horri dagozkion zereginak zuzen betetzeko beharrezko eskakizunak, eta, indarrean dagoen legeriarekin bat etorritik, eta bidezko diren izapideak bete eta gero.

**Eskatzen du**

Legutioko Udaleko idazkari kontuhartzaitza lanpostua behin-behineko izendapen bidez betetzeko prozeduran parte hartzea.

Honekin batera, ondoko agiriak aurkezten dira:

- NANaren fotokopia
- Estatu mailako gaikuntza duen funtzionarioa naizela egiaztatzen duen agiria.
- 3. hizkuntza eskakizuna egiaztatua duela ziurtatzen duen agiria.

.....-(e) n, 2015eko .....-(a) ren ...a

Sinadura.....